

DAVID DE JORGE/ Sukaldaria

“Munduak behea joko luke *guarrindongadei* copyrighta jarriko bagenie”

Zizatzailea, alaia eta zorrotza aldi berean, telebistako sukaldari karismatikoenetako bat da 'Robin Food'. Irrati-saioetan parte hartzen du, kronika gastronomikoak idazten ditu, irudimen handiko blog bat dauka eta makina bat liburu idatzi ditu. Hala ere, dibulgazioan baino, bere lekua sukaldean dagoela uste du. "Oso zailtzat" jotzen duen lanbideari zor zaion begirunez, modu positiboan hitz egitea gustatzen zaio beti.



Telebista-saio bat estreinatu berri duzu, “El sabor es ciego”. Konta iezaguzu zeri buruz doan.

Oso lehiaketa dibertigarria da. Gainera, formatu berri bat da niretzat, orain arte kamera aurrean egin dudan gauza bakarra janaria prestatzea izan baita. Ikusteko atsegina da, eta lau pribilegiatu izango ditut ondoan. Lehiakideak sukaldean arituko dira, eta jakiak prestatzen amaitzen dutenean begiak itxita probatuko dute dena. Puntuak emango zaizkie, eta hauek lehiaketan izango duten ibilbidea zehaztuko dute. Oso saio dibertigarria da, eta Atresmedia taldearen kanaletako batean ikusi ahal izango da.

Telebista, sareak, kritikak prentsan, bloga eta abar. Argi dago asko interesatzen zaizula gastronomiaren dibulgazioa. Zenbat denbora kendu dio De Jorge dibulgatzaileak De Jorge sukaldariari?

Egia esan, gutxi. Lanaldi partzialeko etxeko gizona izateaz gain, sukaldaritzat daukat nire burua. Hori da egiten dakidana, eta zorte handia daukat, jendeari jaten emateaz gain, sukaldaritzarekin lotutako beste zeregin batzuk egin ditzakedalako. Telebista egin,

idatzi edo irratian aritzeko aukera daukat. Sentitzen dudun zoriontasun guztia irakurtzen edo telebistan ikusten nauenari helaraztea da benetan pozten nauena.

'Txorakeriarik gabeko sukaldaritzan' oso lotuta dago zure estiloarekin. Sukaldaritzan sinetsarazi nahi dituztena baino errazagoa eta naturalagoa da zure ustez?

Ni sukaldaria naiz, eta profesional bikainak diren makina bat lagun ditut. Horregatik, badakit zeinen gogorra den lanbide hau. Gehiago edo gutxiago gusta dakizuke zerbait, baina 'kritika' hitza ekiditen saiatzen naiz beti, ez zait batere gustatzen. Idazten dudanean kronikaz ari naiz, eta ez kritikaz. Jatetxe bat gogoko ez dudanean, faktura atsegin handiz ordaindu, etxera joan eta kito, ez dut kritikatzeko. Dibulgazio positiboa egiten saiatzen naiz.

Hainbat sukaldaririk plater batzuei copyrighta jartzeko eskatu dute. Zer iruditzen zaizu?

Harrigarria iruditzen zait norbaitek uste izatea bere platera hain dela garrantzitsua, ezen copyright bat behar duen, baina errespetua diot horrela pentsatzen duenari. Beharbada bizi garen munduaren aldarrearen erakusgarri da, ateak zabaldu baino itxi egiten dituen.

Imajinatu 'guarrindongada' bati copyrighta jartzea, zeinen egiletzat duzu zure burua?

Kontu honetan, mundu guztiak izan dezake berea. Ni ez naiz oso zikina. Patea antxo gazituarekin jatea gogoko dut, baita txokolata almibarretako mertxikarekin ere. Baina 'guarrindongadek' egile-eskubidea izango balute, munduak behea joko luke.

Oraintxe bertan, lagun batek atsegin duzun leku batean jateko proposamena egiten badizu, zein jatetxetara eramango zenuke aho zabalik uzteko, eta zer plater, ardo eta kopa aukeratuko zenituzke?

Hainbeste daudenez, oso zaila da bat aukeratzea. Gertuko jatetxe batera joango nintzateke ziurren. Bi sukaldari onenetakoekin lan egiteko zortea izan dut, eta gainera nire lagun minak dira: Zuberoa jatetxeko Hilario Arbelaitz eta Martin Berasategi. Nola ez, haien gomendioak entzungo nituzke platerak aukeratzeko orduan, nahiz eta orokorrean eltzeko alde egin. Ardoei dagokienez, azkenaldian beratze karbonikoa dutenak gustatzen zaizkit, baita jerez ardoak ere. Ia ez dut koparik edaten, baina beharbada armagnac kopa txiki bat...

Aurrezki eta inbertsio kontuetan, euskaldunaren klixea betetzen duzu: oso jatuna baina diruarekin ziur jokatzen dutenetakoa zara?

Ziur aski, bai. Agian, diru askorik ez daukadalako, eta beste erremediorik ez daukadalako (barrez). Ez naiz dirua xahutzen duten horietakoa; aitzitik, aurreztailetzat dut nire burua, gozatu eta bizitzeko egiten baitut lan. Zortea dut, osasuna daukadalako eta lagunartean goza dezakedalako. Kutxaren laguntzarekin gainera, betidanik. Oraindik nire amaren etxean egongo den gaztetako lehen aurrezki-libreta horretatik ez dut uste inoiz beste finantza-erakunde batekin lan egin dudarik.

